


# OLERKIAK (IV)

Xabier Galarreta



© Marjinalia Bilduma

© Xabier Galarreta

Lege-Gordailua: SS-424/02

Sartaldean neuzkan  
muturrak sartuta,  
anaitxo...  
Belar ondu usainak  
zorabiatu-rik,  
hantxe gelditu nintzen  
hordi,  
hondoari begira.  
"Bizitza" pentsatzen nuen  
"horixe duk: imajinatzeko  
[dagoen arpegio".]  
Hordi eta hori nengoen,  
kanpotik zein barrutik,  
eta ametsak  
    esna  
        arrastatzen nituen  
                    aspalditik.  
Definitiboki,  
    ardorik gabe  
        mozkortzen den jendea  
            —jendilajea ez bazen—  
                maite nuen nik.  
Bai, anaitxo,  
    hornitegia ederki horniturik neukan:  
        edariak, haragiak, amets lizunak,  
akordeak...  
Besterik behar al nuen, ba?

---

<sup>1</sup> Testu guztiak idatzita daude musikaren eraginpean;  
eraginak, berriz, askotarikoak dira: Big-Band, J. Hendrix,  
Santana, Eric Clapton, Bob Marley...

Hornos lurmuturrean nengoen.  
ezer ulertu gabe,  
hantxe utzi ninduen autobusa  
[madarikatzen]  
zeren nik beti gorroto handia  
izan bainien itsasoari  
eta itsasoari lot nintzaketen lan jardunei.  
Zorriak, dakizuenez —zuk ere, anaitxo—  
basapizti txit gozoak dira  
bai tratuan bai afaritako.  
Horratik, pozik nengoen  
Hornos lurmuturrean egoteaz,  
han ez baininduen inork ezagutzen  
—ni neu izan ezik—.  
Hornos lurmuturra bazen  
hormigoiz eginiko amets zoragarriaren  
antzeko,  
eta hain zen ezinezkoa  
ezen neure horizontaltasuna jarri bainuen  
aproban.  
Behin, Amazonas ibaian nengoela,  
halako bizipena izatea  
egokitu zitzaidan.  
Tamalez, ito egin nintzen  
ibaitik gora bizi ziren gizaki zuri-beltzen  
malkoetan  
urperaturik.  
Neskatoa lotu nuen  
abesti batekin;  
eta beste batekin  
hura askatzera nindoala,  
damutu zitzaidan

eta  
beste abesti batekin  
hura areago kateatzea  
deliberatu nuen.  
Izena lotu nion;  
barrena, arima, egun bateko musuak  
lotu nizkion;  
oin zuriak eta sentimendu gozoak,  
ere bai.  
Den-dena lotu nion;  
alde guztietatik.  
Zirrikitu bat bera ere ez zitzaidan  
[oharkabeen pasa.]  
Oso goiz zen  
inora berandu iristeko.  
Neska hura zauri bat zen,  
antzinako zauriei lotuta.  
"Bihotzak gora!" pentsatu nuen alai.  
Gaua aurrera zihoan.  
apurtxo bat *zeken... lotuta... kateatuta...*  
Ardo botila hutsek  
dirdirutzen zuten  
erlauntzaren barrutik  
bipil, indarrez,  
behialako hitz politak,  
sentimendu onak —itzaltsuak—  
aurpegiratzen  
zizkigutelarik.  
Beharturik nengoen  
gauzak ziren bezala  
onartzera: beltz, gorri, hori  
eta zuriak ziren,

noski.  
New York ez zen existitzen  
                    hiztegia baizik,  
                                    ni bezala...

Udaberrian  
    lumaberritzen diren poeten etxean  
                                    sartuta egoten naiz beti.  
Ez zaizu inporta, ezta, anaitxo?  
Nire lumak dira kolore guztietakoak,  
                                    ostadar ezinezkoak daramatzat atxikita,  
                                    eta mugitzen naizenean  
  transformatu egiten naiz.

Lumak dira banderak, zeinuak bezalakoak;  
dira sotanarik gabe geratutako luistarrak  
  [bezalakoak].

Handitu zait gauza guztietaz  
                                    jakiteko jakingura.  
Nork saihes dezake  
                                    hegan egitea  
  txoria izanda?

Egia esan,  
                                    guapoa baino nintzen  
  itsusia;

baina, denborak lagun,  
                                    begi bat handik  
  hankatxo bat hortik  
  maileguan hartuta,  
joan nintzen nire gaurko aurpegia  
  [osetzen.]

Eta orain,  
                                    daukadan lumaiaz

harro nago  
—batzuetan, nire auzoko harakinari  
gauzak aurrenekoan  
aditzen ez badizkiot ere—.

Hau da hau, anaitxo!  
Nork esan behar zuen,  
nik,  
txori honek,  
noizbait okela maitatuko nuela?  
nire lumajea den ederrarekin!  
—barka, erdarakada bada,  
*"eske nik, euskaraz,  
erdarakadak ere maite ditut"*.

Zahartzea bezala da hau,  
sai-hes-te-zi-na.  
Eskerrak, lumaberritzen naizen bakoitzean,  
itxaropenak ere berpizten zaizkidan;  
bestela...

Bizkaian, antza,  
nekazariari  
lugina ere  
deitzen diote.

Hitz polita da, dudarik gabe,  
akordio bat  
bezain  
polita...

Lugina, ameskina (ametsak lantzen dituen),  
olerkaria...

ba ote dago  
patu ederragorik  
unibertso guztian?  
Iparraldean, berriz,

lulia  
deitzen diote  
    aurka egiten digun  
        haize harroxkoari.

Eta bukatzeko,  
    "ludi" hitzari  
        erreparatu behar diogu  
—hain hitz polita izaki,  
        *"erreparatzeko"* ezer gutxi badu  
ere—.

    Barka, txiste merkea da eta.  
Ludia, ludiko amets guztien alde  
    apostu egin zuen  
        baserritar ilustratuak  
    —nik—  
galtzontziloak ere  
    galdu zituena.

Epa! epa!  
    norena da lukainka hori?

Epa!  
    ez utzi sutan arduragabeziaz,  
    lukainka ona da eta!

Epa! epa!

Musikaren  
hiztegi entziklopedikoa  
handiegi zetorkidan  
alde guztietatik.

Ez zegoen zer eginik,  
hiztegi asko zen niretzat.  
Askoegi, inondik ere...



Itxaropentsu,  
heltzen nion  
hurrengo minutuari.  
Bizitza ez zitzaidan itxiko  
hurrengo izkinari  
buelta emanda.  
Itxi, begiak  
eta aukerak  
eta zorionak  
soil-soilik itxiko zitzaizkidan  
gehienera ere.  
Baina hurrengo minutua,  
hurrengo itxaropena,  
hurrengo "hurrengoa",  
hori  
sekula  
*sekula* ez zitzaidan itxiko  
ziurraski...  
Itxarobideak agortezinak nituelako.  
Ni nintzen kapitaina,  
abandonaturiko ontzi batena...  
Halere, ezpain artetik  
jalgitzen zitzaidan kanta  
gelditzerik ez neukan:  
You are my last *esperantza*...  
my last *babeslekua*...  
Gero, begiak ireki nituenean,  
sendagilearen itxarongelan  
aurkitu nuen nire burua,  
osatzerik ez neukan minbizi haren esklabu...

Malder naiz...

Horrek esan nahi du

"elbarri"

edo antzeko zerbait.

"Malda" hitzetik apika...? ☺

Nire atzean, norbaitek oihu:

"Maldizioa, bihotza lapurtu zidatek!".

Denok barrez hasi ginen,

eta gure bularretan

zabaltzen zen

zuloa

nabarmenkeriaz erakusten genion

mundu guztiari.

Oroitzapenak  
eta beste santu guztiak  
bitarte ditugula,  
nik,  
gaur gauean,  
abesti hau  
kantatu nahi dizuet.  
Da, izen eta guzti  
aurpegi eta guzti  
dauzkan abesti zahar bat.  
Jada galduta,  
denboraren zoko-mokoetan.  
Oroitzapenak, anaitxo,  
badakizu  
direla  
mamuen antzeko,  
gure gorputzetik  
bereizitako itzalak,  
trukean  
ezertxo ere  
jaso ez bagenuen ere.  
Horregatik, anaitxo,  
lagunok,  
gaur  
nik  
abesti hau  
kantatu nahi nizueke.

Gametofito.

Horixe naiz ni.

Gametofito fameliko bat.

BAT!

Bale?

Ez bat ez bi.

BAT!

Gooora Gipuzkoa-koa-koa!

(garrasi egin zuen  
ahate itsusiak

—nik, faborez—).

Ga-ga-ga.

Horiexek izan ziren

nire lehenengo hitzak

—grabatuta dauzkat, anaitxo—.

KomoaiDeus!

Tira, ganadu mota hau

dut maite;

ze ingo diogun ba!

Merkealdietan,

nork begiratzen dio

jeneruari?

Ga-ga-ga.

Ez da erraza

ganadua

ganaduzalearengandik

bereiztea,

biak arrazakoak direnean,

bi-biek odolean daramatenean.

Simaur freskoari darion gozoari

atzemateko gai ez den hiritarra

halafede. sutara bota beharko genuke,

Nire jabetzaz  
    jabetzen naizenean,  
esklabuen pare  
    sentitzen naiz.  
Hau ez bada bihotzarekin idaztea  
    —bizitzea—  
Goizuetakoek  
    eta Leitzakoek  
azal diezadatela.  
Jade urtua  
    dut  
    zainetan,  
balio du  
    nire odolak  
    urrea.  
Niri  
    astelehenetan ere  
        jai ematen didate;  
behar dute eta,  
kontuan harturik  
nolako nazka diedan  
    igandeei.

Apur bat sinfonikoa naiz,  
    oraindik zehazturik gabe  
        dauden hitzen antzera;  
konfidantza harturik, berriz,  
    nire tokiaz jabetzen naiz,  
    nire lurraldean sartzen naiz  
        pozakarturik.  
Iparraldean ikasitako beste hitz bat:  
"jabalaldia",  
    barealdia (bereziki itsasokoa),  
    une lasaia (oro har).  
Oi, anaitxo,  
    zeinen antzekoak diren  
        itsasora garamatzaten  
            ibai bideak...

\*\*\*

Adieraz ezin daitekeen bide bat  
    dago  
    gugana iristeko.  
Baina nork du giltza,  
    nork aukera,  
    nork abagunea?  
Mozkortiok, soilik.

Bertso askeak egingo ditut  
askatuko nautenak  
kateatuko nautenak;  
bertso askeak,  
bertso nazkatuak  
bertso biluzi  
eta koadratuak (biribilak baino).

Nire bertsoen  
bertsio librea  
egingo dut  
kateen zama izugarri...  
arina  
bada ere.

Bertso lerroak  
eta  
bertso kateak  
egingo ditut  
gaur, bihar eta etzi.  
Bertso lerro aske handiak  
eta txikiak  
eta ertainak.

Bertso paperak  
bertso saltzaileei saltzeko.

Bertsoak bota eta jarriko ditut,  
bertsotan ari, jardungo dut;  
bertso lerro handiak  
eta txikiak.

Lehertu arte;  
agortu arte;  
barrutik  
apirileko upela bezala



sentitu arte.  
Eta orain,  
gozatu  
nire uztaz,  
nire aurtengo uztaz,  
begiak itxita...  
[Zeinen zaila den nork bere ahotsa aurkitzea].

Dadoak berriro ere  
bota nituen  
hamaikagarrenez  
nire bizitzan.  
Orain, karakterologiaren aitzakiaz  
zitaldu nahi nuen  
neure burua.  
Soinua ez zen oso ona,  
baina...  
Txu-txu trena  
motelegi zihoan.  
Bi pezetako munstroak, alegia...  
Ez zen nahikoa, inondik ere.  
Nik helburu  
askoz jasoagoak  
ezarrita nizkion  
nire buruari,  
bai garai hartan  
bai aurreko garaietan  
—beti erantzuten  
jakin ez banuen ere—.

Blues hau  
azkarregi sartu da.  
Ia-ia  
ez dut  
dadoak botatzeko  
astirik izan  
—lojikoak naiz,  
bertsolariak bezain—.  
Arestiren  
zuzia  
eta irainak,  
nire kontu  
please.  
Ez gaitezen zinikoak izan,  
baina inolaz ere ez paletoak  
—hori bai bekatua—.

"Dardara" onak ditut,  
anaitxo.

Tu comprend?  
(Est-ce que tu comprend?)  
—plus ou moins—.

Nik harmonika  
beti

belarriz

jo izan dut.

Blues ona, hortik dario  
hobekien.

Ez baita ona  
konpromiso gehiegi hartzea,  
azken batean  
xirula jotzeko.

O, baby!  
zeinen

haragitsuak

dituzun ezpainak!

Zu zara... zu zara...  
beti itxaron dudana.

Zu...

Zu bakarrik...

"Kutxot bat arno edan dugu",  
anaitxo.

Ez, ez egin barre.

Gaur, Hendaiara joan gara paseatzera  
eta hango mila hitz eta esaera  
pigatu zaizkit

buruan.

Esaterako,

"Kuxeluz"

—ixilik—

kontaidazu

nor zaren,

anaitxo...

Apur bat galdurik nenbilen,  
solaspide izandakoa  
berreskuratzeke modurik ez neukalako.  
Hala ere,  
soldatapeko artista guztiak bezala,  
eusten jakin nuen.  
Eta sokatik gogor eta luze tiratuta ere,  
ez zela inoiz puskatuko  
iruditzen zitzaidan.  
Orain, hitz asko behar nituen,  
Vivaldi zen eta.  
Solfeatu behar nuen grinaz,  
nire solaskidea ez baitzen  
edonor.  
Batzuetan,  
nire buruari galde egiten nion  
nolatan barneratu nintzen  
bakartasun horretaraino,  
baina inoiz ez nuen  
mereziko zukeen  
erantzunik aurkitu.  
Olio lubrifikatzailea bezala  
sentitzen nintzen  
nire zainetariko bakoitzean zehar.  
Eta galde egin nion nire buruari:  
"nolatan gorrota dezakete emakumeek  
halako gizon bat,  
batzuetan tontakeria handiak esan arren?".  
Ondoez nengoen.  
Amaiera hurbilagotzen  
ia-ia

entzun nezakeen  
ondoez horretatik.  
Ez zegoen suspertzeko astirik.  
Triste nengoen,  
nire futbol taldea  
ez baitzihoan ondoegi.  
Inuzenteegiak ginen.  
Lokatz azpiko bideetan  
bilatzen genuen ur freskoa.  
Iparraldetarrak  
izan zitezkeen edonortzuk:  
Eskandinaviakoak ala gu geu.  
*"Así no vale"*  
esan zuen norbaitek.  
Eta bizkar eman genion,  
ezikasi galantari!  
Misterioak lurra sarraskituta zeukan.  
Denboren misterioa —atzean utzitako  
denboren misterioa—  
deia bezalakoxea zen  
basamortu hartan.  
Denok ginen gorra;  
eta komeni zitzaigunean,  
mutuak  
—kristoren mutuak,  
bai horixe!—.  
Hungaria ez zegoen hain urrun.  
Egia esan,  
urrun zegoen gauza bakarra  
hurbiltasuna baino ez zen,  
Euskal Herria baino ez zen.  
Izan ere,

gorrak  
gure herrian  
milioika zenbatzen ziren  
—hamarnako batzuk

besterik izan ez arren—.

Eta gu,  
musikariak ginen;  
ez genekien beste ezer,  
jotzen baino.

Baina denak gorrak ziren;  
eta azkenik,  
egun batean,  
guk geuk ere erabaki genuen  
gorrak izatea,

eta orduan  
belarriak moztu genituen  
zerrakote handi batez.

Eta egun hartatik aurrera,  
ez genuen arazorik izan  
besteak bezalakoxeak izateko,  
besteak bezain gorrak izateko,  
besteak bezain inuxente/errudunak izateko.

Hurrena izan zen  
muga bat jartzea,  
noraino hurreratu ahal ginen erabakitzeko.  
Ez gorrotorik gehiago bihotzean  
ez desplazerrik gehiag bizitzan,  
bazen garaia gure indarraren berri

[emateko eta!]

Zeruan  
hurkotasun jasangaitz bat  
irakur zitekeen.



Hori ere hutsa...

Baina,  
zer ginen  
geure huskeriaren  
ondorioa baizik?

Barrena hustea  
—poetikoki esanda—  
pixa egitea zen.

Beraz,  
zertarako ibili  
poeta itxurak egiten?

Hustuketa gelditzerik ez zegoen,  
Geure —eta besteen— gernua  
hurrengo hamazortzi  
mendeetan  
[edan behar].

Hortaz,  
patua hurrupatzen ikasi  
eta horrekin etsi beharra geneukan.  
Hausnar egiterik ere ez geneukan  
—bizia salbatzeko  
jarri ziguten baldintza bakarra  
horixe izan zen eta—.

Gure humanismotik hurbil bizi ginen,  
neurri handi batean;  
egiatan, hunkituta baino  
ez bageunden ere.

Kalean, bat-batean,  
sekula ez genuke emakume  
eder bat ere topatuko,  
esango ligukeena:  
zurea naiz gorputz eta arima.

Beraz, gerra hura galduta geneukan zeharo.  
 Egin genezakeen gauza bakarra  
     une txar hura  
         nola edo hala  
         ahalbait lasterren  
             zurrupatzea zen  
 —norberaren gernua edatea  
     ezeini/inori gustatzen ez bazaio ere—.

Ni naiz, bai,  
 olerki endemiko hauen erruduna  
 —sortzailea esatera nindoan, baina...—.

Berrorrek barkatuko dit  
     nire endogamia latz hau.  
 Endekapenak —badakizu, anaitxo—  
     ez du mugarik.

Eta begia zerura altxatzen dudanean,  
 nire arimaren, aurpegiaren, espirituaren  
 distortsioa besterik ez dut ordain gisa  
 jasotzen.

Bihotza daukat lixaturik piku  
                                   [sofritua bezala.]

Mesedez,  
     emaidazu hitz bat,  
 sendatuko nauen berba bat,  
 berbo bat,  
 berborrea bat.

Mesedez,  
     ez nazazu mihinaz irato;  
 emaidazu kilo bat angula  
 nire zorionaz jabe gaitezen,  
 denok,  
     zu, ni eta denok.

Urte berriak ireki ditu  
bere ateak.  
Zergatik uste du jendeak  
urte berria urtarrilaren lehenean hasten dela?  
Ez ote dakite  
udaberriaren albiste  
euren existentzia gorrian?  
Helduko zaizkigu garai berriak,  
zahartuko gaituztenak,  
erremediorik gabe,  
helbururik gabe,  
inkonstzientzia osoz,  
egunak amaitu arte.  
Beti maitatu dut  
endokriminologia.  
Harrapaturik nago  
nire presentean,  
nire biharamun urrun eta hurbilean,  
nire/zure harrokerian,  
giza harrokeria bedeinkatu honetan.

Ez dakit  
zer dela eta  
gogoratzen naizen  
horren sarritan  
Gabriel Arestiz,  
hura eta biok  
hain desberdinak izaki.  
Nire endekapena  
guztiona da,  
eta horrek bakarrik batzen gaitu,  
adierazten gaitu,

zentzuz hornitzen gaitu.  
 Gu "gaituk", bai  
     —hizkuntzak ederki daki  
         bide zidor eta zoko-moko  
                             guztien berri—,  
 suelto gelditzen garenok,  
     gu geu bakarrik gara,  
 eta gure mesfidantza hiper atrofiatua.  
 Nire hitzen tenienteordea naiz  
     —zure aginduetara, anaitxo—;  
 ni naiz bidaia honetan kontsumitzen den  
   [bakarra],  
 baina zu ez kezkatu,  
 kiloko txuletak amaitezinak dira eta.  
 Oi, Euskal Herria,  
     zeinen zorritsu bilakatu nauzun,  
     maitasun itsu guztiek bilakatzen gaituzten  
   [bezala  
   ].  
 Batzuetan  
     —alferreko itxaropena!—,  
 iruditzen zait  
     etorkizunerako  
     —ezerezarako—  
         hitz egiten dudala,  
         maitatzen dudala,  
         hiltzen dudala,  
 akabatzen naizela  
     betizu hezurtsu baten pare,  
 mendi ilun errepidez jositakoetan barne  
     herbesteratuta;  
 oi Euskal Herria,

zeinen garesti saltzen didazun  
inoranzko bidaia txartel honen  
esperantza!

Zeinen garrantzitsuak garen  
olatuak harrapatzen gaituen arte  
eta hondora eraman...

\*\*\*

Gu, olerkariok,  
ez gara  
luzaro bizitzeko  
jaioak izan.  
Bihotza baitugu eri...

\*\*\*

Garaiz gelditzen jakingo banu,  
jakintsua izango nintzateke.  
Zoritxarrez,  
halako bakar bat ere  
ez da existitu  
orain artean.

\*\*\*

Ezer ederragorik  
ez da munduan  
pentsamendu berri baten zain  
egotea baino.

\*\*\*

Ez dakit  
edertasuna zer den:  
kontzeptua, zehaztapena...  
Nahikoa dut hori dena bizitzearekin.  
Nori axola zaio heriotzaz teorizatzea?  
Filosofoari akaso;  
artistari ez, egon ziur.

\*\*\*

Nire inguruan  
mundua dago hil zorian;  
bien bitartean,  
epitafioetan dihardut,  
inoren ohorez berezirik ez.  
Denbora, pasa-hutsa baino ez da eta.

\*\*\*

Ahal izango banu,  
zainetan ardoa sartu nuke  
odolaren ordeztan,  
munduko —edo, behintzat, Euskal Herriko—  
poetarik  
handiena izateko,  
errimarik eza gora-behera.

\*\*\*

Gu, Euskal Herriko poetok,  
bi bizitza ezkutu dauzkagu:  
bata, jendaurrean;

bestea, gure buruaren aurrean.  
Bai bata bai bestea,  
gure lotsagarri.  
Ez nuen inoiz uste izan  
hain patetikoak izatera  
hel gintezkeenik.  
"Izorrai".

\*\*\*

Lore zimelak  
eta  
hitz mortuak  
ditut  
bidaide.  
Eta hi, nahi baduk/n...

\*\*\*

Nire begirada  
argazki kamera da.  
Nahi baduzu,  
jar zaitez nire aurrean  
eta egingo dizut  
argazki bat.

\*\*\*



Nire hitzak editatzen ditut,  
zeruertzean sakabanaturik  
—baina ordenan—  
aurkitu ditudan  
nire hitzak.

\*\*\*

Urrun egotea  
hurbiltasunaren sentsazioa  
baino ez da.

\*\*\*

Sentsazioa  
txanponaren  
beste aldea da.

\*\*\*

Egunen batean  
jendea  
konturatuko da  
hautseztaturiko hitz baula  
baino gehiago  
izan garela.  
Eta ordurako ez da  
beranduegi izango.

\*\*\*

Beti daukagu  
    itzultzeko aukera,  
joateko aukera  
    (ez) daukagun bezala.  
Zuri,  
    zer iruditzen zaizu?

\*\*\*

Pentsatzeari diogun beldur hau...  
    Batzuek uste dute  
        gauzak "A" ala "Z" direla.  
Konturatu ere egin gabe  
    gu geu garela  
"A"tik "Z"ra doan bidea,  
        tartea, abezea.

\*\*\*

Egunsentian,  
    hiriko txori talde zalapartatsuek  
        nire gaztaroaren kanta  
            errepikatzen dute  
                behin eta berriro,  
                    eternidaderraino...

\*\*\*

Gorroto dut  
    nire ahotsa  
        erdaraz;  
uste dut

horregatik naizela  
horren biolentoa,  
horren zakarra  
eta jasangaitza  
erdaraz  
idazten dudanean.

(Eta gutxixeago edango banu, hobe) ☺

\*\*\*

Auzoko mutiko beltzak  
gorrotoz  
jotzen dituen polizia beltza naizela  
iruditzen zait batzuetan;  
eta beste batzuetan,  
polizia beltzaren kolpeak  
gorrotoz hartzen dituzten auzoko mutiko  
beltzak

[naizela].

\*\*\*

Pilota  
pirrika eta boteka  
maldan behera abiatu zen,  
tapatu gabe zegoen estolderia batean  
betiko galdu zen arte.  
Orduan, mutikoak, amore emanda,  
zuloari begira geratu ziren,  
egun hartako itxaropenak pot eginda.

Handik gutxira, ordea,  
pilotarik gabe tenisean jokatzten  
zeinen trebeak izan zitezkeen  
ederki erakutsi ziguten.  
Nork ez du uste  
bizitzako onena  
haurtzaroan ez dagoenik?

\*\*\*

Zeinen nazkagarria den bizitza  
musikarik gabe.  
Nork nahi luke  
halako bizitza bat?  
Ezta gorrek ere  
—horiek euren baitan  
daramate musikarik gozoena—.

\*\*\*

Bihotza kizkurtuta neukan:  
zeinen zabala,  
zeinen mugagabea  
izan zitekeen emozioa!  
Sekula izan den itsasorik harrigarriena da.  
Hor asebeteko ez zaituena  
ez duzu  
beste inon aurkituko.  
Gure bizitza norabide bakarrekkoa dela  
diotenak  
xuxen arraiio daude,  
bai horixe.

Jakin nahi dut  
mina nabaritzeraino;  
eta izadiko haitzuloetan,  
nire jakintza osoari uko egin.

Jakin nahi dut  
non dagoen nire perbertsioa  
non zurea,  
gau honetako jauregiak  
ez baitira argigarriekiak suertatzen  
eta galderak hil egiten zaizkit  
ezpainetan,  
feldrozko galderak,  
urdinak  
—txikiak nahiz handiak—.

Jakin nahi dut  
mina nabaritzeraino;  
eta begiak ixten ditudanean  
bizirik nagoela sentitu.  
Eta amaieratik urrun,  
jakinminaz harantzago,  
ate bat itxi  
eta beste bat irekitzen den

[ziurtasun osoa izan].

Gauzak beti gertatu ziren  
tankera horretan:  
gertatu izan ez balira bezala.